

Informatika Fakultatearen egutegi akademikoa

Informatika Fakultateko egutegi akademikoak zehazten du, batetik, zein diren, ebaluazio osoari begira, azterketak egiteko asteak eta, bestetik, eskolak emateko aldia. Eskolak emateari eskainitako eskola asteetan, egutegian sartzen dira bai bertaratu beharreko egunak bai bertaratu beharreko egunak izan gabe ikaslearen laneguntzat jotzen direnak. Bertaratu gabeko egunak elkarriketa espezifikoak edo lanak aurkezteko erabil ditzakete irakasleek.

Bertaratu beharreko eskola egunak

Eskola astei dagokienez, bi mota definitzen ditugu ikasgelako irakaskuntzan: irakasgai batzuk emateko astegun bakoitzean ezarritako ordutegi jakin bat jarraitzen duten eskola asteak, eta astegun bakoitzean maila bakoitzeko irakasgai bakarra ematen direnak. Azken horiek *orduak batutako asteak* deitzen ditugu eta bi dira lauhileko bakoitzeko. Orduak batutako asteak aukera ematen diete irakasleei, batetik, ezohiko jarduerak antolatzeke bai ikastegian (hitzaldiak, mintegiak, laborategi espezifikoak eta abar) bai ikastegiaz kanpo (teknologia guneak bisitatu, enpresak, ...). Eta, bestetik, ikasleak ebaluatzeko jarduerak antolatzea ere ahalbidetzen die.

Bertaratu gabeko eskola egunak

Egutegi akademikoak bertaratu gabeko eskola egunak tartekatzen ditu eskolak emateko eskolaldian. Lauhileko bakoitzean, eskolak emateko eskolaldiaren amaieran hainbat egun gordetzen ditu irakasgaietako lanak eta proiektuak bukatzeko. Egun horiek osatzen dute *lanak eta proiektuak bukatzeko astea* deitutakoa. Ezin izango zaie ikasleei proba idatzia egiteko deirik egin aste horretan.

Ebaluazio osoa egiteko azterketen astea

Ebaluazio osoko azterketa aldia definituta dago batez ere ebaluazio osoaren sistema aukeratu duten ikasleentzat. Esanak esan, aldi horretan eta ebaluazio osoko azterketaren paraleloan nahitaezko/hautzako probak egin ditzakete 18 asteko jarraipen etengabea aukeratu duten irakasgaietan ebaluazio etengabea hautatu duten ikasleek. Gogorarazten da ezen, aldi horretan, ebaluazio etengabearekin lotutako probak egokitu behar direla iraupen eta pisuarekiko, ebaluazio etengabeari begira 2010eko azaroan erabakitako jarraibideak kontuan har ditzaten.